

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

**301/2026 Foru Agindua, irailaren 4koa. Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko estatua jartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren” ingurumen txosten estrategikoa egitekoa**

“Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko estatua jartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren” izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozeduraren menpe dago, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen bidez araututa.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek Bastidako Udalaren aldetik jaso du aipatutako planari dagokion ingurumen dokumentu estrategikoa, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiarekin bat datorrena, bai eta plan bereziaren zirriborroa ere.

Aurkeztutako hirigintza dokumentazioan egiaztatzen denez, plan berezia partikular batek sustatzen du. Plana behin betiko onartzeko organo substantibo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Saila da, eta ingurumen organoa, berriz, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aipatutako hirigintza eta ingurumen dokumentazioa jaso ondoren, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari ekin zion, eta hilabeteko epea ezarri zuen horretarako (21/2013 Legearen 30. artikulua eta 10/2021 Legearen 75. artikulua).

Kontsulta aldia amaituta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak honako txosten hau, prestatu du, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak hala eskatuta.

Ebazpen honek oinarritzat hartzen duen ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman du 2026ko abuztuaren 6an (25/83 espedientea).

**1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen txikia. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.**


1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen motza.

Plan bereziaren helburua da Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko estatu berri baten hirigintza eta ingurumen ezaugarriak arautzea, gaur egun nekazaritza jarduerarik ez duen lurzoru urbanizaezineko landa lursail batean, lehen zeuden mahastiak erauzi egin baitira.

Horretarako, plan bereziak Bastidako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) ezarritako antolamendua osatzen du, bere zehaztapenen xede diren elementu naturalak edo artifizialak babesteko arauen bidez. Planak, gainera, HAPOan jaso gabeko babes eta zaharberritze arau gehigarriak ezartzen ditu.

Azken batean, landa ingurunekeo turismo ostatuan oinarritutako negozio eredu bat garatzeko aukera planteatzen da, eskala txikikoa, berritzailea eta jasangarria, ingurune fisikoan ahalik eta eragin txikiena sortuko duena eta bisitariei ardoaren kultura baino gehiago ardoa egin aurreko nekazaritza prozesu osoa ulertzen lagunduko diena.

Hemengo planoan erreferentziako plan bereziak hartzen dituen eremuen banaketa erakusten da:



Eraikuntzei dagokienez, a priori birgaitutako itsasontzi edukiontzia erabiltzea planteatzen da, nahiz eta egikaritze proiektuak zehaztuko dituen behin betiko ezaugarriak; nolana ere, eraikuntza aurrefabrikatuak lirateke. Hasiera batean, ostatu modalitate hauek planteatzen dira:

- Estudioa: 6 x 2,4 m-ko edukiontzia, 3 m<sup>2</sup>-ko komuna erantsita daukana.
- Apartamentua: 12 x 2,4 m-ko edukiontzia, 3 m<sup>2</sup>-ko komuna erantsita daukana.
- Apartamentu irisgarria: 12 x 4,8 m-ko edukiontzia, 9,39 m<sup>2</sup>-ko komuna erantsita daukana.

Azkenik, aipatu behar da plan bereziak azpiko proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren azpiegiturak definitzen dituela:

- Ur hornidura.
- Ur Partzuergoak zehaztutako lotunetik eremurainoko bide publikotik igaroko den hartune berri batetik egingo da.
- Argindar hartunea.
- Hartune berria lberdrolak definitutako ezaugarriei jarraituz. Planoetan aireko hartune bat adierazten da plan bereziaren ipar-mendebaldeko eremutik sartuz, baina ez dira ezagutzen linea elektrikoaren xehetasunak (linearen eta zutoinen ezaugarriak, luzera, etab.). Plan bereziaren eremuaren barruan, linea elektrikoak irudikatzen dira planoetan, eta lurpekoak direla ondorioztatzen da.
- Saneamendua.
- Tratututako ura iragazpen bidez lurrera isuriko luketen 2 hobi septiko jartzea. Horien ezaugarriak plan berezi hau garatuko lukeen egikaritze proiektuan zehaztuko lirateke.
- Euri urak zuzenean lurzorura isuriko lirateke.

## 1.2. Ebaluatzen den eremu geografikoa:

Jarduketa eremua Bastida udalerriko lurzoru urbanizaezineko 3 lurzatitan dago, Arabako Errioxako eskualdean, Arabako Lurralde Historikoaren hegoaldean. Udalerriko hirigunetik kilometro erdi baino zertxobait gehiagora hegoaldera daude kokatuta, eta zehazki honako hauek dira:

- 3 poligonoko 50 lurzatia.
- 3 poligonoko 64 lurzatia.
- 3 poligonoko 65 lurzatia.

Eremuaren azalera osoa 10.491 m<sup>2</sup>-koa da eta lurzatieen orografiak iparraldetik hegoalderako malda leun bat du. Gaur egun lurzatiak ez du inolako uztarik, eraikinik edo azpiegiturarik. Jarraian ageri den irudian kolore berdexkan nabarmentzen denez, plan bereziaren xede diren lurzatiak Bastidako hegoaldean daude, herrigunetik 600 metrora (herrigunetik km 1era gutxi gorabehera).



Irudi hauetan plan bereziaren eremutik ekialdera, hegoaldera eta mendebaldera dauden ikuspegi panoramikoak erakusten dira, hurrenez hurren:



### 1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak emandako dokumentazioan azaltzen denez, guztira hiru aukera hartu dira kontuan; kontuan hartuta kokapenari dagokionez ez dela beste kokalekurik aztertzen, planifikatutako jarduketak lurren jabetzak definitzen dituelako eta definitutako kokapenean aurreikusitako jarduera egokitzat jotzen delako. Hona hemen aukerak laburbilduta:

- “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): ostatuak ez ezartzea, esku ez hartzea eta plan bereziaren dokumentua ez idaztea. 0 aukerarekin, ez litzateke esku hartuko, eta, beraz, indarrean dagoen hirigintza plangintzari eutsiko litzaioke. Aukera hori baztertuta geratzen da sustatzaileak adierazitakoaren arabera, ez dakarelako epe ertain-luzerako inolako eragin onuragarririk, bereziki tokiko sozioekonomian.

- 1 antolamendu aukera (ez da hautatu): 1 aukerak lurzattia gaitzea planteatzen du eremuan turismo apartamentuen proiektua ezartzeko beharrezkoak diren urbanizazio elementuen bidez. Horretarako, aparkaleku plataforma bat planteatzen du lurzatirako sarbidearen ondoan eta eremuaren barrualdetik erabilerak banatzen dituzten ibilbide batzuk. Hauek ezarriko dira: igerileku bat, biltegi eta mantentze lanetarako modulu bat, harrera modulu bat aparkalekutik gertuen

dagoen eremuan, mahasti zaintzaileen txabola bat eremuaren erdialdean eta apartamentu batzuk eremuaren alderik gorenean, iparraldean, non ikus dominantzia bat lortzen den eremuaren hegoaldeko landa paisaia osoaren gainean (Ebro ibairantz, 1,5 km ingurura).

Lur mugimenduak, ordea, handiak dira, iparraldeko eremuak lurzatiaren gainerakoak baino malda handiagoak baititu. Gainera, arrazoi horrexegatik, ez dira betetzen aplikatu beharreko araudian ezarritako irisgarritasun baldintzak.

Irudi honetan aukera honetan planteatutako antolamendua erakusten da:



• 2 antolamendu aukera (hautatua): 2 aukerak (bera aukeratu da plan bereziaren antolamendurako) lurzatia gaitzea planteatzen du eremuan turismo apartamentuen proiektua ezartzeko beharrezkoak diren urbanizazio elementuen bidez. Horretarako, aparkaleku plataforma bat proposatzen du lurzatiarako sarbidearen ondoan eta eremuaren barrualdetik erabilerak banatzen dituzten ibilbide batzuk. Hauek ezarriko dira: igerileku bat, biltegi eta mantentze lanetarako modulu bat eta harrera modulu bat aparkalekutik gertuen dagoen eremuan, mahasti zaintzaileen txabola bat eremuaren erdialdean eta apartamentu batzuk eremuaren beheko eremuan, non paisaia hobeto txertatzea lortzen den apartamentuek paisaia hainbesteko nagusitasunik ez izatean.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten duenaren arabera, ingurumenaren ikuspegitik, 2 aukera da onuragarriena, nagusiki lur mugimendu gutxiago behar dituelako eta aplikatu beharreko araudian definitutako irisgarritasun baldintzak betetzen dituelako.



**2. Kontsulta aldiaren laburpena.**

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren esparruan, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko fasea hasi zen, araututako prozeduraren arabera. Halaber, jendearen eskura jarri da espedienteko dokumentazioa Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Hona hemen kontsultatu ziren erakunde, entitate eta elkarten zerrenda, haietatik zeinek erantzun duten adierazita:

|                                                                                                     |   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| URA – Uraren Agentzia                                                                               | √ |
| Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza | √ |
| Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza        |   |
| Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza                                        |   |
| Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza                                       | √ |
| Arabako Natur Institutua                                                                            |   |
| Ekologistak Martxan Araba                                                                           |   |
| GADEN – Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea                                               |   |
| Eguzki talde ekologista                                                                             |   |
| Hontza Natura Elkartea                                                                              |   |
| GAIA elkarte                                                                                        |   |
| Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)                                                       |   |
| UAGA – Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna                                                 |   |
| IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa                                                  |   |
| Aranzadi Natura Zientzien Elkartea                                                                  |   |
| Arabako Kontzejuen Elkartea                                                                         |   |
| SEO Bird Life                                                                                       |   |
| Bastidako Udala                                                                                     |   |
| Arabako Errioxako Kuadrilla                                                                         |   |
| Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua                                                              |   |
| Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak                                              | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua                                             |   |
| Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua                                | √ |
| Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza                                                   | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua                                |   |
| Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua                                                  |   |

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 25-83 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean):

– URA – Uraren Euskal Agentziak txosten bat egin du. Bertan, jarduketa eremuaren eta plan bereziaren deskribapen laburra egin ostean, jabari publiko hidraulikoaren eta hari lotutako babes zonen babesa aipatu du, eta, azkenik, horniduraz eta saneamenduaz aritu da.

Azkenik, honako hau ondorioztatu da:

- Udalerrian dagoen saneamendu sare orokorrera konektatzeko ezintasuna behar bezala arrazoitu beharko da, eta, konektatu ezin izanez gero, plan bereziak proposatzen den saneamendu sistema autonomoaren ezaugarrien informazio xehatua jaso beharko du.

Halaber, jakinarazten da, hala badagokio, plan berezi hau garatzen duen proiektuaren idazketa fasean Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren isurketa baimena izapidetu eta lortu beharko dela. Baimen hori Uraren Euskal Agentzian izapidetuko da.

- Proposatutako jarduketetatik eratorritako kontsumo eskari berrien zenbatespena gehitu beharko da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, hala badagokio, baliabidearen nahikotasunari buruzko iritzia eman dezan, Uraren Legearen testu bateginaren 25.4 artikulua arabera.

- Arabako Errioxako Ur Partzuergoak emandako txosten bat ere sartu beharko da, jarduketa eremuan aurreikusitako eskari berriei erantzuteko dauden hornidura azpiegituren nahikotasunari buruzkoa.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du plan berezi honetan Bastidan (3. poligonoko 50., 64. eta 65. katastroko lurzatieta) interpretazio ostatua jartzeko planteatzen den aldaketa ez datorrela bat lortu nahi den eremuaren irudia eta balioak mantentzearekin. Argudiatzen denez, nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenari lotuta ez dagoen ostaturako hirigintza erabilerak, oro har, onargarria ez den eragina sortzen du lurzoru urbanizaezinean, hori guztia Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko den ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren arabera (EHAA, 111. zenbakia, 2014/06/13). Ondarearen ikuspegitik, ohartarazten da landa lurzatiak ingurune sentikorrek direla; bertan, paisaia balioek protagonismoa hartzen dute eta arkitektura ingurune naturalean integratzen da. Esparru horretan, eraikinek eta eraikitako elementuek tokiko kultura identitatea errespetatu behar dute eta haren ingurumen balioak nabarmentzen lagundu behar dute.

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta, laburpen bat egin eta zenbait gogoeta plazaratu ondoren, honako hau ondorioztatu du:

- LAGen eta nekazaritzako eta basogintzako LPSen erabileren definizioaren arabera, zuzendaritza honen ustez turismo apartamentuak (planteatutako proiektua figura horri dagokio) “onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak eta instalazioak” dira.

- Balio agrologiko handiko lurzoruei eragiten dienez, nekazaritza arloan eskumena duen foru organoaren txostena izan beharko da, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikulua xedatzen duenez.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du, espedienteaz aztertuta, ez dagoela berez eragin arkeologikorik. Hori esanda, jasotzen da lurzatiak urbanizatu aurretik komerzializatekeela alde aurreko azterlan arkeologiko bat egitea (prospekzio arkeologikoa), ondare arkeologikorik badagoen ebaluatzeko eta prebentzio edo zuzenketa neurri egokiak ezartzeko. Nolanahi ere, adierazten da udalerriko zona arkeologikoen mugaketaren barruan egingo diren lur mugimendu guztien berri eman beharko zaiola alde aurretik Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbituari (Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 33. eta 65. artikulua).

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, plan berezia laburki azaldu ondoren, nabarmentzen du kokalekua kultura paisaia baten mugaketaren barruan dagoela, zeinak Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko den ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak babesten duen, eta terraza eta laborantza alorren zona batean kokatzen dela eta dekretuan elementu horiek berriaz onartuta daudela babestutako paisaiaren barruan (eta hura eratuz). Adierazten denez, kultura paisaia horretan (nekazaritza jardueraren garapenaren bidez gizartearen eta natura ingurunearen artean izandako elkarrekintza historikoaren ondoriozkoa bera) erabilera berriak sartzeko ez ditu desitxuratu behar babes hori eragin duten balioak. Jarraian, araudiaren zenbait alderdi aipatzen dira (Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea eta 89/2014 Dekretua), honako hau ondorioztatzeko:

- Lurzoruaren erabilera, paisaia eta bertako biztanleen bizimodua nagusiki nekazaritzari lotuta dauden ingurune batean erabilera berriak sartzeko (turismoarena eta ostatuarena) ez du laguntzen kultura paisaiaren balioak kontserbatzen, are gehiago hirigintza ezarpenaren proposamena eta eraikinen ebazpen formalak ardoaren eta mahastiaren paisaiari lotutako tipologia eraikitzaile ezagunetatik kanpo daudenean.

- 89/2014 Dekretuaren Xedapen Iragankorrak arautzen duenez, “monumentu-multzoaren mugaketak hartzen duen eremuan egin beharreko esku-hartzeak alde aurretik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, eta baimen horren ondotik eskuratu behar da udal lizentzia”.

• Amaitzeko, gogorarazten da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek zehaztutako Babes Berezikoko paisaien artean (uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua) landa paisaia edo paisaia malkartsu harmoniatsuak, aparteko edertasuna edo kultura balioa dutenak aipatzen direla, eta horien artean, zalantzarik gabe, ardoaren eta mahastiaren kultura paisaia dagoela.

— Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat igorri du, eta bertan, lehenik eta behin, erreferentziako araudia adierazten da, zenbait gogoeta egiten dira eta Nekazaritza Sektoreko Kalteen Ebaluazio Protokoloa (PEAS) eranstean da. Bigarrenik, ondorioztatzen da, aipatutako PEAS horren emaitza kontuan hartuta, plan berezi hau aldekoa dela, baldin eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena lortzen bada eta haren ezarpena aplikatzeko den sektoreko araudiaren arabera egin behar dela kontuan hartuta.

### 3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak.

Lehenik eta behin, adierazi behar da “Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko ostatu baterako lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren” eremua lurzoru urbanizaezinean kokatzen dela, nagusiki mahastizaintza eta ardogintzako nekazaritza eremu batean, nahiz eta bertan zeuden mahastiak kendu egin diren. Planaren area, ia osorik, nekazaritza eta abeltzaintza erabilera edo balio estrategiko handiko kategorian sartzen da, EAEko Nekazaritzako eta Basogintzako LPSaren arabera. Katetoria horren gaineko eragina oso garrantzitsua dela uste da.

Eremua ez dagokio inongo naturagune babesturi, eta ez dator bat flora mehatxatuko espezieen laukiekin edo onura publikoko mendiekin.

Erasan diezaiokeen landarediari dagokionez, esan behar da plan bereziaren eremuaren mugetan berezko landaredia antzeman dela, *Brachypodium retusum*-aren larre xerofiloekin bat datorrena. Albitz-belardi horiek lehortetara eta intsolazio handira egokitutako belar komunitateak dira, eta Europar Batasunaren Intereseko 6220\* habitat katalogatua osatzen dute, 92/43/EEE “Habitat” Zuzentarauaren arabera.

Beste alde batetik, ingurumen dokumentu estrategikoan jasota dagoenez, faunari dagokionez, aipatu behar da erle-txori (*Merops apiaster*) bikote bat hauteman dela, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan “interes bereziko” gisa katalogatua, eta habia bat duela aztertutako eremuaren ondoko ezponda batean. Hegazti horrek mahastietan edo muino txikietan dauden lurrezko ezpondak erabiltzen ditu; horietan tunel bat zula dezake, eta bertan kokatzen du bere habia. Gehitu behar da plan bereziaren eremua uhalde-enara espeziearen interes bereziko eremu bati dagokiola (“kaltebera” gisa katalogatua Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan, eta kudeaketa plan bat duena: martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretua, ALHAO, 120. zenbakia, 2001eko urriaren 22koa); beraz, nahiz eta ingurumen dokumentu estrategikoan ez den aipatzen espezie hori plan bereziaren eremuan dagoenik, berariazko prospekzio bat egin behar zatekeen. Ugaztunen kasuan, ingurumen dokumentu estrategikoan adierazten da azeri arrunta (*Vulpes vulpes*) dagoela sastraka eremuan, induskatutako gordeleku bat ikusi baita.

Era berean, kontuan izan behar lirateke plan berezia ezartzeak eragingo lituzkeen ondorioak, onetsiz gero, eraikuntzan obrak gauzatzeak eta lurrak mugitzeak sortutakoak. Honako hauek dira: baliabideen kontsumoa (materialak eta energia), emisio kutsatzaileak atmosferara, lurzorura eta dauden elementu hidrografikoetara (sare hidrografikora isurtzen diren jariatze urak), zarata edo eraikuntza hondakinak. Eragin horiek aldi baterakoak izango lirateke eta obrak amaitu bezain laster desagertu beharko lukete, baina beharrezkoa izango litzateke obrak gauzatzeko jardunbide operatibo egokiak hartzea eta, kasua bada, prebentzio eta babes neurri egokiak.

Badira lurzoruetan eta gainazaleko nahiz lurpeko uretan eragin garrantzitsuak sor ditzaketen alderdi nabarmenak, hala nola udalerrian dagoen saneamendu sare orokorrera konektatu gabe egotea. Proposatzen diren saneamendu sistema autonomoak zehaztasunez argitu behar dira, eta alderdi hori zehatzago aztertu behar da, ingurumen dokumentuan ez baita behar bezala landu.

Ardoaren eta mahastiaren kultura paisaiaren gaineko eragina (kultura ondarea eta paisaia):

Nabarmentzekoa da, kontsulta fasean Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak agerian utzi dutenez, plan bereziaren kokalekua kultura paisaia baten mugaketaren barruan dagoela, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko den ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak babestua (EHAA, 111. zenbakia, 2014ko ekainaren 13a), eta terraza eta laborantza alorren eremu batean kokatzen dela, eta dekretuan berariaz onartuta daudela babestutako paisaiaren barruan (eta hura eratuz).

Kontsulta fasean aurkeztutako eta aurretik laburbildutako alegazioan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du zentzu horretan egindako aldaketa hau ez datorrela bat eremuaren balioak mantentzearekin, eta argudiatzen du nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari lotuta ez dagoen ostaturako hirigintza erabilerak onargarria ez den eragina sortzen duela. Zuzendaritza horren ustez, eraikinek eta eraikitako elementuek tokiko kultura identitatea errespetatu behar dute eta haren ingurumen balioak nabarmentzen lagundu behar dute. Era berean, Arabako Foru Aldundiko Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazitakoaren arabera, lurzorua erabilera, paisaia eta bertako biztanleen bizimodua nagusiki nekazaritzari lotuta dauden ingurune batean erabilera berriak sartzeak (turismoarena eta ostatuarena) ez du laguntzen kultura paisaiaren balioak kontserbatzen, are gehiago hirigintza ezarpenaren proposamena eta eraikinen ebazpen formala ardoaren eta mahastiaren paisaiari lotutako tipologia eraikitzaile ezagunetatik kanpo daudenean. Nolanahi ere, jarduketa hori Arabako Foru Aldundian kultura arloan eskumena duen organoaren baimenaren mende dago, 89/2014 Dekretuan ezartzen denez.

Beraz, kultura paisaiari dagokionez, eremuaren katalogazioa kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek arlo horretan ezartzen dituzten oharrei eta ondorioei erreparatu beharko zaie. Nolanahi ere, eskuragarri dagoen informazioarekin baloratu behar da ondorioak oso garrantzitsuak izango direla eta jarduketak eragin nabarmenak sor ditzakeela, eta ez dela behar bezala justifikatu lurzoru urbanizaezinean, hirigunetik urrun dagoen nekazaritza eta natura ingurune batean eta ikus alterazioa eremu zabaletatik nabaritutako litzatekeen zona oso gailen eta kalitate paisajistiko handiko batean ezartzea.

Adierazitako zentzuan, nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenari lotuta ez dagoen instalazioa denez, funtsezkoa da hiri lurzoruan edota hiri lurzorua mugakide diren guneeetan kokatzeko aukerak edo hautabideak aurreikustea, are gehiago kultura ondasunaren kalifikazioa (monumentu multzo kategoriarekin) eta babestutako kalifikazio horretan sortuko litzatekeen eragina kontuan hartuta. Beraz, egindako aukeren azterketa sakon berrikusi behar da.

Eskualdeko laborantza alor eta terrazek, hala nola plan bereziaren eraginpean daudenek, lurren orografia moldatzen dute eta ezponda txikiz, hegiz, euste hormez, bidez eta bidezidorrez osatutako mosaiko paisaia sortzen dute, elementu arkitektonikoz hornituta, hala nola txabolez eta mahastizainen aterpez, eta horiek Arabako Errioxako paisaia aberastu eta ezaugarritzen dute. 89/2014 Dekretuak elementu horiek babesteko eta mahastiak kontserbatzeko eskatzen du, lurzoru urbanizaezina hirigintza aldetik eraldatuko duten eta multzoaren paisaiaren kalitateari eragingo dioten garapenen aurrean. Kultura paisaia horretan, nekazaritza jardueraren garapenen bidez gizartearen eta natura ingurunearen artean izandako elkarrekintza historikoaren ondoriozkoa bera, erabilera berriak sartzeak ez ditu desitxuratu behar babes hori eragin duten balioak.

Horri dagokionez, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Kultura Ondarearen erregistroan sartutako kultura ondasunen erabilerak (horien artean Ardoaren eta Mahastiaren Kultura Paisaia dagoelarik) 34.3 artikuluan ezarritako irizpide orokorra errespetatu behar duela; horren arabera, "ondasunen erabilerak bateragarria izan behar du deklarazioan babestu nahi diren balioekin, eta beti bermatu beharko da haien kontserbazioa eta balioa nabarmentzea". Terrazetan babestu beharreko balioak zein diren zehazteko, adierazi behar da 89/2014 Dekretuaren III. Eranskineko babes erregimenetik ondorioztatzen dela nekazaritza eta abeltzaintza erabileran dautzala babestu beharreko balioak dakartzaten alderdiak, eta paisaiaren kultura balioak kontserbatzeko zonaren izaerari eta nekazaritza jarduerari eutsi behar zaiela, horiek desagertzea saihestuz.

Lurzoru urbanizaezina eraldatzeko eta babestutako nekazaritza paisaia eraldatzeko jarduketa hori onesteak ingurumen dokumentuan kontuan hartu ez den aurrekari bat ekarriko luke, eta hori bereziki aztertu behar lukete kultura arloan, lurralde antolamenduan eta ingurumenaren ikuspegitik eskumena duten organoek.

Hori guztia dela eta, eremuaren katalogazioa eta babesa kontuan hartuta, eta plan berezian jasotako jarduketan egungo zehaztasun mailarekin —non ez baita behin betiko zehazten erai-kinen irtenbide arkitektonikoa, ez argindarraren hartunea, ez lur mugimenduak eta, ondorioz, terrazetan nahiz laborantza alorretan izango dituen eraginak—, ondoriozta daiteke eragin nabarmenak sor daitezkeela ingurumenean, batez ere paisaia osagaian eta kultura ondarean.

**4. Plan bereziaren azterketa, 21/2013 Legearen V. eranskineko eta 10/2021 Legearen II. C eranskineko irizpideak kontuan hartuta. Ondorioa: plan bereziaren ingurumen ebaluazio estratetikiko arrunta egitea.**

Ingurumen organo honek, egindako kontsulten emaitza, aurreko atalean deskribatutako ingurumen inpaktu nagusien balorazioa eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean nahiz Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II. C eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartuta (bi eranskinek oso irizpide antzekoak dituzte), ondorioztatzen du erreferentziako plan bereziaren ingurumen ebaluazio estratetikiko arrunta egin behar dela, ingurumenean ondorio nabarmenak dituelako, txosten honetan erakutsi denez. Sakonago aztertu behar da proposatutako irtenbidearen eragina, eta hautabideak proposatu behar dira lurzoru urbanizaezinean okupazioak saihesteko edota hirigintza garapenak dauden edo onartuta dauden eremuetatik gertuago kokatzeko.

Ondorioz, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa dauzkadan eskumenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. “Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko ostatu baterako lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren” ingurumen txosten estratetikoa formulatzea, eta planaren ingurumen ebaluazio estratetikiko arrunta egin behar dela ondorioztatzea, ingurumenean ondorio nabarmenak izateagatik, aurretik adierazitako baldintzetan.

Bigarrena. Foru agindu honen eranskin gisa agertzen den “Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa-ingurunea interpretatzeko ostatu baterako lurzoru urbanizaezineko plan bereziari” dagokion ingurumen azterlan estratetikokoaren irismeneko dokumentua formulatzea. Halaber, egindako kontsulten emaitza gisa, eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen erantzunak erantsi dira, ingurumen azterlan estratetikoa egin dadin eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako izapidetzearekin jarrai dadin.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estratetikoa nahitaezko txosten loteslea da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua ezartzen duenaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen berri zabaltzeko, ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Bosgarrena. Ebazpen hau Bastidako Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduen Zuzendaritzari jakinaraziko zaie.

Seigarrena. 21/2013 Legearen 31.5 artikuluekin bat etorritik, ingurumen txosten estratetikoko honi ezin zaio aurkeztu errekurtsorik. Nolanahi ere, bide judizialean errekurtsioak aurkeztu ahal

izango dira plana edo programa onartzen duen xedapen orokorraren aurka edo, bide administrazioan, errekursoak aurkeztu ahal izango dira plana onartzen duen egintzaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 4a

*Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua*  
**SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA**

*Natura Ingurunearen zuzendaria*  
**MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA**

### I. eranskina

#### **“Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko ostatu baterako lurzoru urbanizaezineko plan berezia”ren ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua**

##### **1. Aurrekariak**

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1 artikulua arabera, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie, besteak beste, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiten zaien plan eta programei, ingurumen organoak, kasuz kasu, ingurumen txosten estrategikoan hala erabakitzen duenean, legearen beraren V. eranskinetako irizpideekin bat etorritik. Modu berean jasotzen da kasuistika hori Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II. A eranskinaren 7. apartatuan.

Kasu honetan, erabaki da “Bastidako mahasti batean Arabako Errioxako landa ingurunea interpretatzeko ostatu baterako lurzoru urbanizaezineko plan berezia”ri ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaiola, ingurumenean ondorio esanguratsuak dituelako.

21/2013 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen organoak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua egingo du, ingurumen txosten estrategikoa egiteko egindako kontsulten emaitza kontuan hartuta, eta ez da beharrezkoa izango eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei beste kontsulta izapide bat egitea. Izapidetzen jarraitzeko, sustatzaileak 21/2013 Legearen 21. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du, hau da, plan bereziaren hirigintza dokumentua eta «irismeneko dokumentu» honen arabera egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoaren dokumentua jendaurrean jarri beharko ditu.

Ingurumen txosten estrategikoa egiteko egindako kontsultei erantzuteko jasotako txostenak ingurumen txosten estrategikoaren 3. apartatuan laburbiltzen dira. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 25-83 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) web orrian dago alegazioen edo gogoeten kopia osoa.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentu hau ematen da.

##### **2. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak eta ingurumen arazoak ebaluazio eremuan**

Ingurumen azterketa estrategikoak (IAE) ingurumen txosten estrategiko honen 4. apartatua hartu beharko du kontuan. Bertan, plan bereziaren ingurumen inpaktu nagusiak jaso eta deskribatzen dira. Jarduketa horrek populazioetan eta jendea bizi den eremuetan eta beste ingurumen osagai batzuetan (landaredia, lurzoruak, fauna basatia, azaleko eta lurpeko urak, balio estrategiko handiko lurzoruak, etab.) duen eraginaren azterketan sakonduko da.

IAEak sakon aztertu beharko du, bereziki, kultura ondarearen eta paisaia osagaiaren gaineko eragina. Plan bereziak ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan (Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien kultura paisaia monumentu multzoaren kategoriarekin kultura ondasun gisa kalifikatzen duena) eta maiatzaren 9ko 6/2019 Legean (Euskal Kultura Ondareari buruzkoa) jasotako zehaztapenetan izan ditzakeen eraginak arretaz aztertu beharko dira, eta, horri dagokionez, paisaia gai hauek jorratu beharko dira gutxienez:

- Eragin daitekeen ikuseremuaren paisaiaren kalitatea eta hauskortasuna aztertzea. Ere-muaren paisaiaren balioa aztertu nahi da, ezaugarri nagusiak deskribatuz, ikus aberastasunaren ondorioetarako. Espazio horrek plan berezia onartzearen ondorioz planteatzen den hirigintza jarduketa bat hartzeko duen gaitasuna balioestea eta baloratzea.

- Planteatzen den erabileraren eta planaren garapen gisa proiektatzen diren eraikuntzen deskribapen zehatza. Jarduketa horrek ibilgailuen bideen eta sarbideen, saneamenduko eta ur hornidurako sareen, energia elektrikoko sarearen, ingurune-ko giza presentziaren eta abarren eraldaketan duen eragina aztertzea.

- Plan berezian jasotako jarduketan ikusgarritasuna ikus ardoaren hainbat gunetatik, lehen-tasuna emanez paisaia kalitate handiena dutenei eta jende gehien biltzen dutenei. Hainbat pro-filetatik eraikitako eraikinak planoaren gainean birsortzea. Interikuspenaren azterketa.

- Babestutako kultura paisaia (monumentu multzoa) turismo eta eraikuntza erabilera hau ezartzea baloratzea, baldintzapeko egoki moduan edo desegoki moduan. Planaren gara-penaren koherentzia mailaren azterketa, kalitate handiko nekazaritza paisaia tradizional batean ezartzekoa dela kontuan hartuta, eta plan bereziak garatuko duen proiektuaren eta nekazaritza paisaiaren elementu tradizionalen arteko lotura edo batura aztertzea, hori guztia eremua paisaia babestu eta paisaia multzo monumental gisa katalogatzearen xedea kontuan hartuta.

- Jarduketak Arabako Errioxako paisaiaren ezaugarri bereizgarrie-kin duen lotura eta ezaug-arri bereizi horien pertzepzioan duen eragina. Mahastien paisaia tradizionalan duen eragina.

- Paisaia integratzeko proiektua. Jarduketa lurzoru urbanizaezinean eta paisaia tradizional babestuan nola integratzen den aztertzea, ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko neurri zehatzak hartu ondoren. Txertatu beharreko babes eta zuzenketa neurrien definizioa eta aurrekontua. Konpentsazio neurriak hartzeko aukera baloratzea.

Arreta berezia jarriko zaie paisaia tradizional eta babestu horren kalitatea definitzen duten paisaiaren berezko osagaiei, alderdi estetiko-kulturalak kontuan hartuta. Horri dagokionez, kon-tuan hartuko dira osagai naturalen eta erabileren integrazioa, konposizio estetikoa eta horren ondoriozko giro emozionala. Paisaiaren kalitatearen azterketan, plan berezian proiektatutako instalazioen presentziak eragindako balio estetiko-kulturalen galera baloratu beharko da.

### **3. Ingurumenaren azterketa estrategikoaren zabaltasuna, xehetasun maila eta zehaztasun maila (indarrean dagoen araudiaren arabera garatu beharreko alderdi teknikoak)**

21/2013 Legearen 5. artikulua-**ren** arabera, ingurumenaren azterketa estrategikoa, plan be-reziaren zati izanik, plan edo programa hori aplikatuz gero ingurumenean eragin daitezkeen ondorioak identifikatzen, deskribatzen eta ebaluatzen ditu. Halaber, arrazoizko aukerak ematen ditu, teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak direnak, plan edo programaren hel-buruak eta ezarriko den lurralde eremua kontuan hartuta, plan edo programa horren ezarpenak ingurumenean eragin ditzakeen kalteak prebenitzeko edo zuzentzeko.

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 20. artikulua-**ren** honako hau ezartzen du ingurumenaren azterketa estrategikoari dagokionez:

“1. Irismen agiria kontuan hartuta, sustatzaileak IAEa egingo du, plan edo programa apli-katzeak ingurumenean eragin ditzaken ondorio adierazgarriak identifikatuta, deskribatuta eta ebaluatuta. Halaber, arrazoizko aukerak emango ditu, teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak direnak, plan edo programaren helburuak eta aplikazio eremu geografikoa kon-tuan hartuta.

2. IAEa plan edo programaren zati dela joko da, eta IV. eranskinean adierazitako informazioa jasoko du, gutxienez, bai eta kalitatea bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak ere. (...)

3. IAEa egiteko erabili ahal izango da eskura dagoen informazio egokia, administrazio publiko horrek edo beste batzuek sustatutako plan eta programak egitean lortu dena”

Txosten honen ataletan azaldutakoa kontuan hartuta, IAEa idazteko, 21/2013 Legearen 20.2 artikuluan eta IV. eranskinean ezarritakoa beteko da, eta, gutxienez, honako informazio honen garapena eta azalpena jasoko dira:

a) Edukiaren, plan edo programaren helburu nagusien eta beste plan eta programa egoiekiko erlazioen zirriborroa.

b) Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak eta haien bilakaera probablea plana edo programa aplikatu ezean.

c) Eragin esanguratsua jasan dezaketen eremuen ingurumen ezaugarriak eta haien bilakaera plan bereziaren indarraldian espero den klima aldaketa kontuan hartuz.

d) Dagoen eta plan edo programarentzat garrantzia duen ingurumen arazo oro, zehazki ingurumen garrantzi berezia duen edozein eremuri lotutako arazoak sartuz. Haien artean daude, besteak beste, naturaguneei eta espezie babestuei buruzko legedia aplikagarriaren arabera izendatutako eremuak eta Natura 2000 Sareko espazio babestueak.

e) Nazioarteko, erkidegoko nahiz estatuko eremuetan ezarritako ingurumena babesteko helburuak, plan edo programarekin lotura dutenak, eta helburu horiek eta ingurumen alderdi oro hura egitean kontuan hartu diren modua.

f) Ingurumenari ekar dakizkiokeen ondorio esanguratsuak, zenbait alderdi barne, hala nola biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, klima faktoreak, klima aldaketan duen eragina, bereziki planari edo programari lotutako karbono aztarnaren ebaluazio egokia, ondasun materialak, kultura ondarea, paisaia eta faktore horien arteko erlazioa. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

g) Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean sortutako eragin kaltegarri oro prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko neurriak, klima aldaketan duen eragina arindu eta hari egokitzea ahalbidetzeko direnak barne.

h) Kontuan hartutako aukerak hautatzeko zioen laburpen bat eta ebaluazioa egiteko moduaren deskribapen bat, zailtasunak barne, hala nola behar zen informazioa biltzean ager zitezkeen gabezia teknikoak edo ezaguera eta esperientzia falta.

i) Ingurumena zaintzeko programa bat, zeinean jarraipenerako aurreikusitako neurriak deskribatzen diren.

j) Ingurumen azterketa estrategikoan jasotako informazioaren laburpen ez-tekniko bat.

#### **4. Informazio eta kontsulta modalitateak**

21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan, 10/2021 Legearen 73. artikuluan eta Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta, apartatu honetan erreferentziazko plan bereziaren ingurumenaren ebaluazio estrategiko arruntaren informazio eta kontsulta modalitateak definitzen dira. Zehazki, organo sustatzaileak honako jarduketa hauek egingo ditu, gutxienez:

A) Eragindako administrazio publikoei eta publiko interesdunari kontsulta egitea, ingurumenaren azterketa estrategikoa eta planaren hasierako bertsioa bidalita, eta gutxienez 45 eguneko epea ezartzea azterketa eta oharrak egiteko. Kontsultaren xede diren eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna, gutxienez, ingurumenaren txosten estrategikoaren 3. apartatuan adierazi eta identifikatutakoak izango dira (3. apartatua: kontsulta fasearen laburpena).

B) Ingurumenaren azterketa estrategikoa eta planaren hasierako bertsioa jendaurrean jartzea, araudi erregulatzailerak zehazten duen dokumentazioarekin batera, gutxienez ALHAOn iragarkia txertatuz, eta gutxienez 45 eguneko epea ezarritik.

#### **5. Ingurumen adierazpen estrategikoa eskatzea**

Ingurumen organo honi 21/2013 Legearen 25. artikuluan eta 10/2021 Legearen 74. artikuluan aurreikusitako ingurumen adierazpen estrategikoa eskatzeko, 21/2013 Legean aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Era berean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua arabera, artikulua horretan aipatutako txosten sektorialak sartu beharko dira.

21/2013 Legearen 24.d) artikuluan ezarritakoa betez, arestian aipatutako dokumentazioarekin batera laburpen agiri bat aurkeztuko da eta, bertan, sustatzaileak azalduko du nola sartu diren ingurumen alderdiak, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta haren irismeneko dokumentu egokitzapena eta egindako kontsulten emaitzak planaren azken proposamenean eta nola hartu diren haiek aintzat.